

## Natur Bideen Eguna,

2011ko Apirilak 30, Leitza

Eguraldia lagun, Plazaolan barna ospatutako Natur Bideen Egunean 300 bat pertsonak hartu zuten parte larunbatean, Apirilak 30.

Aurten, Leitzaan ospatu zen Natur Bideen Eguna Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta, Leitzako, Lekunberriko eta Larraungo udalen laguntzaz. Ekintza Nafarroako



Gobernuko Turismo Departamentuaren laguntzei esker ospatzen da.

Lekunberriko eta Leitzako geltokietan hasi ziren ibilbideak Uitziko tunelaren hegoaldean elkartzean, tunela gurutzatzen zuen tren txutxuak bere bidaiari hasi zuen Plazaolako Natur Bidean barna.

Txikienentzako hirugarren irteera bat ere izan zen, Kitarranbueltan, eta pailazo batzuk izan ziren haiekin Leitzako Plazaraino joan zirenak; behin plazara iritsita, jaia animatzen egon ziren globoflexia eta joko desberdinekin.

Parte hartzaile guztiak plazan bildu zirenean: pintxoak eta edariak banatu ziren, musika eskolatik etorritako trikitilari batzuek jaia alaitu zuten eta aurretik tren txutxura igo ez zirenak herritik buelta batzuk emateko aukera izan zuten orduan.

Amaitzeko, Mendukilorako 4 sarrera, Beigorri parkerako beste 4 sarrera, Plazaolako 4 kamiseta eta Nafarroako Gobernuko produktuen 4 lote zozketatu ziren herriko plazan.

Partzuergotik eta Leitza, Larraun eta Lekunberriko udaletxeetatik egun horretan izandako parte-hartzea eta sortutako giro ezin hobea eskertu nahi dugu.

## UITZIKO TUNELA



Urte honetan, Uitziko tunelak garrantzia berezia izan zuen dudarik gabe. Natur Bideen Eguneko zenbait ekintza puntu horretan egin ziren jendeak tunelaz disfrutatzeko. Era horretan familientzako prestatutako 2 ibilbideak tunelaren hegoaldeko partean ospatu ziren, bertan parte-hartzaileentzako edariak banatuz.

Puntu horretatik ere atera zen tunela zeharkatu eta natur bidea gurutzatu zuen tren txutxu-a. Bidaia hori egiteko aukera, aurretik izena emandako 60 pertsonak izan zuten.

Gogoan hartu behar da, 2680 metroko tunel hau izan dela erronkarik handiena natur-bidearen egokipenerako. Gaur egun, Nafar Gobernuaren Turismo Sailak lagunduta berreskuratzen ari da, burutze-aurrekontuen %60 betez, bai eta C.A.N. fundazioko **10.983. proiektua** bozkatu dutenen laguntzari esker ere. Plazaolako lagunei proiektu honi eusteko eskatzen jarraitzen zaie, plurianuala delako eta bertan ekintza ezberdinak sartzeko baitira (segurtasuna, argiztapena...).